

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

26/2026 Mozioa, martxoaren 5ekoa, energia berriztagarrien proiektuen gaineko gardentasunari eta komunikazioari buruzko otsailaren 26ko 19/2025 Mozioa behar bezala betetzen dela bermatzeko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Batzordeak, 2026ko martxoaren 5ean egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

26/2026 Mozioa, martxoaren 5ekoa, energia berriztagarrien proiektuen gaineko gardentasunari eta komunikazioari buruzko otsailaren 26ko 19/2025 Mozioa behar bezala betetzen dela bermatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote idatziz eman diezazkiela batzarkide-taldeei otsailaren 26ko 19/2025 Mozioaren lehen puntuan aipaturiko informazioa.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote dokumentazioaren aurkezpen hori lantzen ari den energia berriztagarrien proiektuen zerrenda, egoera, faseak eta informazio garrantzitsuen berri emateko batzordea egingo den eguna baino hamabi egun lehenago eman diezaiela batzarkide-taldeei, 15:00ak baino lehen.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote herritarren esku jar dezala web orri batean, era irisgarri eta erraztuan, 19/2025 Mozioaren lehen puntuan aipaturiko informazioa.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 5a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA